

# euskaraz seguru

euskara  
zalantzarik gabe  
erabiltzeko gida

EUSKARA ETA ELEANIZTASUNeko ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE EUSKERA Y PRURILINGÜISMO

eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetza**





2009. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak idazkarientzat ikastaroak antolatu zituen bere hiru campusetan. AZPko langileek euskaraz lan egiteko eskura zeuzkaten tresnak ezagutarazi eta gomendio orokorrak eta, aldi berean, euren eguneroko beharrei erantzuten zietenak eskaintzea izan zuten helburu.

Otsailean hasi eta apiril arte ikastaro hauen helburu nagusia idazkariek euskara erabiltzerakoan autonomia eta segurtasuna irabaztea izan zen. Parte hartzaileek lanean ohikoenak ziren zalantzak eta idatziak ekarri zituzten saioetara. Eskuaratean dugun liburuxka honetan horiek guztiak jaso dira eta AZPko langileentzako gidaliburu freskoa izan nahi du, langileak aldamenean izango duena, nahi duenean kontsultatzeko. Garaiari egokitu nahian, bi formatutan eskainiko dugu: eskuko formatuan eta formatu elektronikoan. Azken hau **Azpidazkiren atarian** egongo da guztion eskuragarri.

**EUSKARAZ SEGURU** izenburupean argitaratu dugu liburua eta erabiltzailearen neurri-neurrirako mezuak helarazi ditugu sei kapitulutan. Mendiko argazkiekin ilustratuta dago, lanean euskara erabiltzeak dakarren ahalegina, ausardia, liberazioa, plazera eta atsegina irudikatu nahirik. Aldi berean, liburuxka honen erabiltzaileak bere bidean seguru dabilela sentitzeko beharrezko tresnak eskura dituela sentitzea nahi dugu, eta une oro, biderik malartsuenean ere, bidelagun izango duela aurrera egiteko gidaririk onena.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau osatzen jardun duten lagunei, AZPko langileei eta Emun Aholkularitzako teknikariei.

Gidor Bilbao

UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordea



Sarrera . . . . .	3
Autonomia irabazten . . . . .	7
Aldatzen . . . . .	13
Kalitatez, noski . . . . .	19
Nola idatzi . . . . .	25
Zalantzek itota . . . . .	33
Testuz testu . . . . .	41
Bibliografia . . . . .	51







**AUTONOMIA IRABAZTEN**



## AUTONOMIA IRABAZTEN

Euskaraz seguru ibili behar dugu. Eta, horretarako, hurrengo orrietan seguruago ibiltzeko laguntza dator. Gure kabuz seguruago eta txukunago ibiltzeko laguntza. Ahalik eta finen, ahalik eta autonomoen.

## EDUKIA:

ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKOAK	1
HIZTEGIAK	2
ARAUAK	2
HIZTEGIAN ZELAN BILATU	2
AZPIDAZKI	3
EHUTSI	3
EHULKU	3
BESTE BALIA-BIDE BATZUK	3

## NABARMENAK

- Eusko Jaurlaritzako webgunean euskarazko softwarea deskargatzeko mila aukera daude: [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)
- Euskalterm izeneko datu basean 100.000 fitxa baino gehiago daude.
- Euskalbar izeneko tresnaren bidez hainbat hiztegi dituzu klik batean.

## ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKOAK

Bi motatako zuzentzaile ortografikoak erabil ditzaitegu.

1. Word-en edo open office-n ari bagara lanean, programak berak dauka instalatuta euskarazko aukera.

**Zelan egin:**

- Tresnak** atalean sartu (*herramientas*)
- Hizkuntzak** izeneko atalean klikatu (*idioma*)
- Eta, azkenik, **hizkuntza ezarri** (*seleccionar idioma*) klikatu eta **euskara** (*vasco*) aukeratu.

Dena den, zuzentzaile horiek ez digu balioko beste programa batzuetarako.

2. Posta elektronikoa kudeatzeko programetarako ez digu balio. Beraz, Xuxen deskargatu behar da programa bera erabili ahal izateko.

**Nondik deskargatu?**

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/euskarazko\\_softwarea/eu\\_9567/adjuntos/XuxenIV/XUXEN%20IV%20instalatu.zip](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/euskarazko_softwarea/eu_9567/adjuntos/XuxenIV/XUXEN%20IV%20instalatu.zip)

Deskargatu ezin baduzu, Xuxenen webgunean ere ematen dute aukera testuak sartzeko eta internet bidez zuzentzeko.

<http://www.xuxen.com/index.php>



## HIZTEGIAK

Interneten ere badaude denon eskura hainbat hiztegi.

- **Euskalterm** datu basea: 100.000 fitxa baino gehiago ditu. Hitzen esangura agertzeaz gain, gaiaren arabera daude sailkatuta.

[http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm)

- **Hiztegi orokorrak:** hainbat hiztegi daude: euskara-euskara, euskara-ingelesa, euskara-gaztelania, ... Erabilienak: Elhuyar hiztegia eta 3.000 hiztegia.

- **Corpusak:** egituratutako testu sorkak dira. Euskaraz hainbat daude, baina erabilgarriena EHUK prestatutako **Ereduzko Prosa Gaur** izeneko da.

<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

- **Euskalbar:** firefox izeneko web nabigatzailean integratzen da tresna hau. Tresna honekin klik bakarrean 20 hiztegi baino gehiago dituzu .

<http://euskalbar.eu/>

## Nola bilatu hiztegiak?

Hiztegian hitz bat bilatzean, ez badugu aurkitzen, ez etsi lehenengoan. Izan ere, akaso, nonbait egongo da...

- Egiaztatu ondo aukeratu duzun hizkuntza edo leku egokian idatzi duzun.
- Egiaztatu hitza ondo idatzi duzun. Batez ere, ea h duen, edo s/z, ...
- Hitza deklinatu barik sartu behar da. Agian azken a soberan dago.
- Ez bada agertzen, erabili bilatzailak: elebila, google, ...

- Ez bada agertzen, hiztegi espezializatuagoak erabili beharko dituzu.

Azkenik, hitza agertzen denean, ondo begiratu adiera guztiak. Izan ere, askotan lehen adierarekin nahikoa izango dugu, baina baliteke guk bilatzen dugun adiera ez izatea hiztegian agertzen den lehena. Irakur itzazu arretaz agertzen diren adibideak, askotan baliagarriak izango baitira.

Edozein zalantza argitzeko, EHUko AZPko langileentzat bereziki sortutako kontsultagunea daukazu:

### ARGITOKIA

<http://www.ehu.es/azpidazki/argitokia.asp>

## AZPIDAZKI

Azpidazki izeneko webgunea EHUko webgunea da, euskara hutsezkoa eta AZPko langileentzat prestatua.

Webgune integrala da eta jakingarri ugari biltzen ditu.

<http://www.ehu.es/azpidazki/>

Idazteko arauak agertzen dira; data zelan idatzi, adibidez; edo letra larriak noiz erabili behar diren. Gramatika arauak eta esaldi ereduak ere badakartza. Baita idaz-

kariak eta atezainek erabiltzen dituzuen idazki-ereduak ere.

Baina gehiago ere bada. Material gordina ere badago bertan: egoki idazteko arauak, zalantzak argitzeko liburuak, ...

Eta beste bi zerbitzu ere baditu: **AZPko langileek** kontsultak egiteko modua eta astero argitara ematen duen albiste laburra.

## EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiaren webgunean hainbat baliabide daude.

- **Euskaltzaindiaren arauak:** <http://www.euskaltzaindia.net/arauak> Euskaltzaindiak urte urte argitara eman dituen arau guztiak daude webgune honetan batuta. Arauei lotutako ariketak ere sarean daude:

<http://euskaljakintzaarauak.googlepages.com/home>

- **Hiztegi batua:** Euskaltzaindia lantzen ari den hitz normalizatuen zerrenda: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua>

## EHULKU

EHUK berak, Azpidazki izateaz gain, EHULKU izeneko zerbitzua ere badu martxan. Honen helburua euskararen erabilera zuzena eta egokia bultzatzea da. Horretarako, bakoitzak dituen hizkuntza-arazoei irtenbidea eman nahi dio EHULKUK. Bertara jo dezakezue aholku eske (ez itzulpen eske).

Horrez gain, EHUKo Euskara Zerbitzuak astero aholku bat bidaltzen die e-postaz EHUKo hala eskatzen duten EHUKo langile euskaldun guztiei.

<http://www.ehu.es/ehulku/>

## BESTE BALIABIDE BATZUK

Sarean beste hainbat eta hainbat baliabide daude.

- **Euskaljakintza** webguneak baliabide-bilduma handia egin du bere webgunean: hiztegiak, kontsultak egiteko guneak, fonetika eta ortografia lantzeko guneak, estilo- liburuak, hizkera aberasteko guneak, aldizkariak, ...

<http://www.euskaljakintza.com/baliabideak/>

- **Lantalan** webguneak ere hainbat tresna batu ditu berera. Hiztegiak, agiri ereduak, euskara zuzena erabiltzeko aholku eta arauak, euskarazko softwarea, ...

<http://www.lantalan.com/>

- **Ikasbil:** Euskara on-line eta zeure kabuz ikasi eta hobetzeko ezinbesteko webgunea da ikasbil izeneko hau. Hainbat testu ditu mailaren arabera sailkatuta, hainbat audio-grabazio, hainbat bideo ... eta horrez gain, landutako ariketak ere agertzen dira.

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/>

Euskarazko  
baliabide  
bilduma handia  
dago webgune  
honetan:  
[http://  
www.euskaljak  
ntza.com/  
baliabideak/](http://www.euskaljakintza.com/baliabideak/)





**ALDATZEN**





## ALDATZEN

Zer zaila den gaztelaniatik euskarara pasatzea! Zaila izan, bada, baina posible ere bada, ezta?

## EDUKIA:

HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEA	1
AHOLKU BATZUK	2
ASERTIBITATEA	3

## HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEA

Erretzen duenari oso zaila egiten zaio uztea. Lehenik eta behin, nahia izan behar da, hori egiteko gogoia izan behar da. Baina horren ostean, nola utzi erretzeari? Nola eman pausoa?

Zenbat eta gehiago jakin, zenbat eta inguruko laguntza gehiago izan, orduan eta aukera handiagoa dago erretzeari utzi eta ohitura berriak hartzeko.

Ba, hizkuntza-ohiturak aldatzeko, beste horrenbeste.

## Zeintzuk dira pausoak?

- Norberarenak eta partekatuak diren hizkuntza-egoerak aldatu nahia izatea.
- Ekimena hartzea egoera horiek euskararen aldekoak izan daitezten.
- Pausoz pauso egoera horiek kontrolatzeko gure ingurukoen babesa aurkitzea.
- Norbera gai izatea egoera horiek kontrolatzeko edo erregulatzeko, bide horretan lan egin eta saiatzea, alegia.

«Abdetfattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hitzak ez du antzik xaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili xaboa, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago (...) horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egin».

**Bernardo Atxaga**

## NABARMENAK

- Gaztelaniatik euskarara pasatzea zaila da, baina posible da.
- Ez lotsatu akatsak egiten dituzulako.
- Ezezagunekin izaten da errazagoa euskaraz egitea. Horretarako, ordea, oso garrantzitsua da lehen hitza euskaraz egitea .



## AHOLKU BATZUK

Hizkuntza-ohiturak aldatzen hasteko, oso garrantzitsua da gaiari buruz ahalik eta gehien jakitea . Bide horretan laguntzeko, hona hemen aholku batzuk:

- **Ohartu zaitetz besteek nola egiten duten**, arretaz ikusi eta entzun besteek nola adierazten dituzten bere sentipenak (haserrea, maitasuna, atsegina, ...) eta saiatu ikusi duzuna kopiatzen.
- **Ez lotsatu akatsak egiten dituzulako**. Denok egiten ditugu, edozein hizkuntzatan. Lasai egon. Ez lotsatu ez badakizu ondo esan duzun ala ez. Azkenean, elkar ulertzea da garrantzitsuena, eta horretarako ez da ezinbestekoa akatsik ez egitea, ezta?
- **Babesak bilatu**. Jende asko poztu ohi da euskaraz hasten garela ohartutakoan. Babes horiek bilatu eta pertsona horien konfiantza eta esker ona lortzen saiatu.
- Hasiera batean, normala da arraro eta deseroso sentitzea. Ez gaude ohituta egoera berrietara eta horrek nolabaiteko zailtasuna eragin dezake. Baina lasai, behin egiten hasita, **uste baino errazago egingo zaizu aldaketa**.
- **Ez saiatu** lehen egunetik **aldaketak kolpetik egiten**. Astiro ibili. Pausoz pauso. Errazenetik hasi eta zailenera hurbilduz joan. Egoera jakin batzuetan eta pertsona jakin batzuekin hasi.
- Egia da egoera jakin batzuetan zailagoa dela aldatzea. Adibidez: haserretzen garenean, edo sentimenduak adierazten ditugunean, edo gai oso tekniko bati buruz ari garenean. Ez etsi. Egoera horietan hizkuntza-aldaketa gertatzen ez bada ere, lasai, egoera errazagoetan aldaketa eginda, oso arrakastatsua izango da.
- **Ez larritu** prozesuan **atzera bueltarik izanez gero**. Normala da. Prozesua zaila da eta **hizkuntza-ohitura berria** ez da egun batetik bestera finkatzen.
- **Ezagutzen ez ditugunekin sarritan errazagoa** izaten da euskaraz hastea. Pertsona horiekin ez daukagu ohitura erroturik, eta errazagoa izan ohi da. Baina bideak jarri behar dira. Ezagutzen ez ditugunekin, lehen hitza euskaraz egin behar dugu. Are gehiago, gugana jotzen duten ikasle gehienak euskaldunak izango dira, beraz, horiekin euskaraz hastea litzateke logikoena. Ulertzen ez badute, eurek eskatuko digute hizkuntza aldatzeko.

Ez saiatu lehen egunetik aldaketak kolpetik egiten. Astiro ibili. Pausoz pauso. Errazena denetik hasi eta zailenera joan hurbiltzen.



### Zer egin?

1. Ez dakit nigana datorrenak euskaraz dakien, ez dakit lankide berriak euskaraz dakien. Badaezpada, gaztelaniaz egingo diot.

Hurbiltzen diren askok badakite euskaraz, batez ere ikasleak badira. Eta eurek ere sarritan ez dakite euskaraz dakin. Beraz, saiatu lehen hitza beti euskaraz egiten. Baldin badaki, euskaraz egingo du, eta, ez badaki, gaztelaniaz egingo duzue lasai asko.

2. Euskara ikasi egin dut, baina ez dakit gai izango naizen batzuek hitz egiten duten euskara ulertzeko.

Normalean idazkaritzan egiten dituzun elkarrizketak laburrak izaten dira, ez oso sakonak, eta nahikoa estandarrak. Horrek konfiantza emango dizu, ia beti antzeko gauzak esan beharko dituzulako. Datorrenari ere esan ahal diozu mantsago hitz egiteko edo ulertu ez duzun hitz hori errepikatzeko. Gainera, horrela gozatu ahal duzu hizkera horien aberastasunarekin.

3. Ez naiz eroso sentitzen euskaraz egiten, besteek zer pentsatuko duten beldur naiz, euskara politikarekin, moderno edo zaharkitua izatearekin eta abarrekin lotzen du jendeak.

Aurreiritziak asko izan daitezke eta bakoitzak izan ditzake bereak. Gainera, denekin asmatzea ezinezkoa da. Beraz, ez sentitu deseroso. Zure lana bi hizkuntzatan egiteko gai zara eta hori ez da gutxi.

### ASERTIBITATEA

Asertiboa izatea izan da orain arte eman ez dugun aholkua, baina, akaso, beste aholku guztien muinean dagoen aholkua da hauxe. Ohiturak aldatzeko prozesuan, asertiboa izatea da gakoa.

Eta zer da asertiboa izatea? Hiztegiek-eta honela definitzen dute asertibitatea: gure desioak **adeitsu, gozo, zuzen eta egoki** adierazteko gaitasuna da, inori eraso egin barik besteekin gure desioa bete dadin negoziatzea.

Askotan ona izaten da jakitea zer ez den asertibitatea. **Erantzun zakarrak edo erasokorrak** ematea ez da asertiboa izatea. Baina erantzun pasiboa ematea ere ez da asertiboa izatea, hau da, besteek presioa egiten dutenean amore ematea.

Eta gurera etorri, zer da asertiboa izatea hizkuntza-ohiturak aldatzerakoan?

Nahi dugun hori (kasu honetan euskaraz hitz egitea) lortzeko modu eraginkorra da hiztun-asertiboa izatea. Nahi duguna lortuko dugu adeitsu eta gozo, baina era berean zuzen eta egoki. Inor mindu gabe, baina gure helburuetan atzera egin gabe. Horixe da, horren simple eta konplikatu aldi berean.

Asertiboa izateak badakartza abantaila batzuk hizkuntza-kontuetan. Izan ere, **nahi duguna esaten dugu eta horrek asetzen gaitu**. Gainera, ez dugu inoren eskubiderik kaltetzen eta horrek erantzun erasokorra izateko aukerak gutxitzen ditu. Eta, azkenik, informazioa zuzen eta artez ematen dugunez, gure jarrera eta ikuspuntua argi eta garbi uzten dugu.

Eta zein da euskaldun asertiboaren portaera?

**Lehen hitza beti euskaraz** egiten du. Berari gaztelaniaz zuzentzen zaizkionean, egoeraren arabera ahalik eta gehien saiaturen da euskaraz egiten. Komunikazioa ezinezkoa suertatuz gero, gaztelaniaz mintzatuko da. Baina berak euskaraz nahiago duela jakinaraziko du eta beste kidea animatuko du euskara ikas dezan.

**Gure desioak  
adeitsu, gozo,  
zuzen eta egoki  
adierazteko  
gaitasuna da  
asertibitatea.**





**KALITATEZ, NOSKI!**



## KALITATEZ, NOSKI!

### EDUKIA:

EGOKITASUNA- RI BURUZ	1
ESTILOA	2
LABUR-LABUR	3

Hizkuntzan ere kalitatea beharrezkoa dugu. Baina zer datorkigu burura kalitatezko euskarari buruz ari garenean? Kontzeptu lausoa da, zaila egiten zaigu zer den labur adieraztea. Hala ere, honako lerrootan adierazitakoekin bat egingo dugu guztiok:

- Hizkuntza tresna bat da, norberarengan eta inorengan eragiteko tresna.
- Emozioak eragiteko balio behar du.
- Hizkuntzak eraginkorra behar du izan.
- Kalitateak integrala behar du, eraginkortasunaz gain zuzentasuna eta jatortasuna biltzen dituena.

Beraz, hizkuntzari lotutako kalitateak hiru maila nagusi ditu:

**Zuzentasuna:** Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara, arau horiek aplikatzeko modukoak diren egoera komunikatiboetan.

**Jatortasuna:** euskararen senaren edo usadioaren arabera.

**Egokitasuna:** bere xederako egokia den euskara, eraginkorra den euskara.

### EGOKITASUNA

Zer da egokia? Helburua lortzeko balio duena. Hortaz, kontzeptu aldakorra da, helburuaren arabera aldatzen dena, hain zuzen ere. Beraz, gure diskurtsoa egokia izan den jakiteko, hainbat faktore hartu behar ditugu kontuan:

- zein den gure helburua.
- zeini idatzi edo hitz egin behar diogun.
- zein bide erabiliko dugun mezua zabaltzeko.
- hiztunaren eta entzulearen hizkuntza-gaitasuna.

### NABARMENAK

Kalitate integralak eraginkortasuna, zuzentasuna eta jatortasuna behar ditu.

Kontuan hartu behar da zein den gure helburua, hizketaldia egokia izan den ala ez jakiteko.

#### La Antilingua

*“El abajo firmante, habiéndose dirigido en las primeras horas de la mañana a los locales del sótano para poner en funcionamiento la instalación térmica, declara haber casualmente incurrido en el hallazgo de una cuantía de productos vinícolas, situados en posición posterior al recipiente destinado al contenido del combustible y de haber efectuado la extracción de uno de dichos artículos con intención de la factura sobrevenida en el establecimiento situado en el piso superior.”*

## ESTILOA

Gaztelaniaz estilo batera ohituta gaude, eta hori euskarara itzuli nahi izaten dugu. Baina gaztelaniazko ereduak ez da normalean egokia izaten eta ez daukagu zertan hori kopiatu. Hona aholku batzuk, estilo egokiagoa lortzeko.

### ESALDI ARINAK egin

Argi eduki behar dugu zer esan nahi dugun eta egoki antolatu, gehiegizko betegarriak baztertuz. Aditza zuzenean erabiltzea ona da: esan beharrekoak zuzenean esan itzazu.

Hala ere, aipatu behar da lan handia egin dutela hainbat arlotan

Hala ere, lan handia egin dute hainbat arlotan

### NOMINALIZAZIOA: eman haizea aditzari

Administrazioan aditzak izen bihurtzeko joera handia dago. Zeharo baztergarria ez bada ere, gehiegikerian erortzen gara maiz eta sarriegi jotzen dugu, beharrik gabe, estilo honetara. Ondorioa: idazki gehienak berdinegiak eta hotzegiak dira, testu ilunak eta astunak sortzen ditugu.

Langileen hautaketarako irizpide subjektiboak erabilpenaren salaketa egin dute

Langileak hautatzeko irizpide subjektiboak erabili direla salatu dute

### EZ ZAMATU ESALDIA: ATZERAKARGA

Uste zabaldua da euskaraz aditza esaldiaren azkenean kokatu behar dela. Esaldi laburretan ondo funtzionatzen du, baina uste horri itsu-itsu jarraitzeak ulergarritasun-arazo ugari ekar ditzake; batez ere esaldi luzeetan, atzerakargatik, hau da, informazioaren zutabe nagusiak esaldian atzera bidali edo elkarrengandik urruntzen baditugu.

Argitasunaren mesederako, baditugu zenbait jarraibide:

- Esaldi laburragoak egin.
- Lokailuak erabili.
- Mendeko esaldietarako, zenbait lotura-partikula erabili: *nahiz eta, baldin eta, baizik eta, harik eta, ...*

### 7 GOMENDIO labur

1. Esaldiak moztu luzeegiak direnean.
2. Subjektua eta aditza elkarrengandik ahalik eta hurbilen jarri .
3. Galdegaia denean, aditza aurreratu.
4. Ahal denean, galdegai faltsua jarri aditzaren aurrean:  
Honekin batera bidaltzen dizut
5. Aditz deklaratiiboak aurrera pasa:  
Esan digute ez dela diru-laguntzarik emango
6. Ezezko esaldiak baiezko bihurtu. Baiezko esaldiak errazago ulertzen dira. Ezezko bat baino gehiago elkarren segidan idatziz gero, irakurlea nahastu egingo dugu, eta ziurrenik behin eta berriz irakurri beharko dugu.
7. Testua errazteko, zerrendak erabili.

## NABARMENAK

Gaztelaniazko ereduak ez da beti egokia izaten eta ez daukagu zertan hori kopiatu



### HIZKERA NATURALA erabili

Hona aholku batzuk bide horri jarraitu ahal izateko:

1. Gehiegizko betegarriak baztertu, egoki antolatu.
2. Aditz aktiboa erabili.  
**Informazio horren azterketa egiten da txosten honetan X**  
Informazio hori aztertzen da txosten honetan
3. Ahalik eta esaldirik arinenak egin.
4. Egitura pasiboak baztertu.  
**Bilerak egiteko ohitura oso zabaldua dago X**  
Bilerak egiteko ohitura handia dute
5. Ez erabili alferrikako erlatiborik.  
**Lau lagun dira joango direnak X**  
Lau lagun joango dira
6. Kontuz gerundioekin.  
**Ordezkariekin elkartu gara taldekideen datu guztiak bilduz X**  
Ordezkariekin bidez taldekide guztien datuak bilduko ditugu
7. "Antilinguaz" idatzitako testuak baztertu.
8. Erabili hitz sinpleak, zehatzak eta adierazgarriak.

## LABUR-LABUR

Hona hemen mezuak egokiago ulertzeko lagungarri eta erabilgarri izan daitezkeen zenbait lokailu:

- **Ondorioa adierazteko:** *beraz, ondorioz*
- **Iritzia kontrajartzeko:** *dena den, hala (eta guztiz) ere, baina, ordea, aldiz, berriz*
- **Zalantza/zalantza eza adierazteko:** *esango nuke, ez nago ziur baina, agian, beharbada, argi dago*
- **Arrazoiak gehitzeko:** *baita... ere, halaber, gainera, era berean, horrez gain*
- **Adibideak/zehaztasunak emateko:** *hain zuzen ere, adibidez, esaterako, besteak beste, hala nola*
- **Ideiak birformulatzeko:** *honekin zera esan nahi dut, hau da, alegia, bestela esanda*
- **Testua antolatzeko:** *hasteko, alde batetik.... ; bestetik, bukatzeko, azkenik, bestalde, gainera, halaber*
- **Gaia zehaztekoak:** *... dela eta, dagokionez*
- **Kausa adierazteko:** *horregatik, hori dela eta*
- **Zergatikoak:** *...-ren berri izan dezazun, -ren jakinaren gainean egon zaitez*
- **Helburua:** *honekin batera bidaltzen dizut, honen bidez/bitartez, jakinarazten/adierazten dizut*





**NOLA IDATZI...**



## NOLA IDATZI ...

## EDUKIA:

DATAK ETA LEKUAK	1
ORDUAK	2
LETRA LARRIAK ETA XEHEAK	3
LABURTZAPENAK	4
MARRATXOA HITZ ELKARTEETAN	5

Datak, orduak, helbideak edo maiz erabili beharreko bestelako datuak idatzi behar dituzunean zalantzak izan ohi dituzu, agian: *urtarrilak 1ean? urtarrilak 1?* Noiz idatzi letra larria, noiz xehea? *Unibertsitatea ala unibertsitatea?*

Idazten hasi eta orduantxe sortzen zaizkigu zalantzak. Xehetasun ugari hartu behar izaten dira kontuan. Erraza da, hala ere. Jarraian aholku sorta bat duzu eskura eta hauekin asmatuko duzu.

## 1. DATAK ETA LEKUAK

Data jartzerakoan letrak, zifrak eta leku-izenak erabiltzen ditugu maiz. Euskaltzaindiak data honela idazteko gomendatzen digu:

*Leioan, 2009ko otsailaren 20an*

*Leioa, 2009ko otsailaren 20a*

Zenbaki bidez adierazi nahi izanez gero, aukera bat baino gehiago dago. Honela:

*2009/02/20; 2009/II/20*

## Adi leku-izenarekin!

Izan ere bi aukera dauzkagu:

Leku-izena bere horretan idatzi:

*Donostia, 2009ko uztailaren 4a*

Leku-izena deklinatu eta "non" kasuan jarrita:

*Donostian, 2009ko uztailaren 4an*

## Apirilak 23 egitura dutenak

Koma artean erabiltzeko forma egokia: oharretan, karteletan, bileradeietan ... Honela:

*Bihar, urtarrilak 8, ziurtagiriak banatuko dira.*

## NABARMENAK

Data nola idazten den argibide gehiago behar baduzu, jo ezazu hona:

<http://www.ehu.es/azpidazki/default.asp?itemID=11>

## Argibide txikiak:

- **Urtea** zenbaki bidez adierazi behar da eta punturik gabe. Hilabete-izenak letra xehez.
- **Leku-izenen** kasuan, herri-izenak idazterakoan, kontuan izan behar dugu amaierako "-a" hori. Herri askoren izenek "-a" daramate bukaeran eta beste batzuek berezkoa dute: *Donostia, Donostiatik, ...* Bestelakoa da *Bizkaiaren* kasua, bukaerako "-a" hori galdu egiten dute hiru kasutan: "nondik", "nora" eta "nongo" (*Bizkaia, Bizkaiaren, baina Bizkaira, Bizkaiko*).
- **Hilabete-izenak** jatorriz honela dira: *urtarril, otsail, martxo ...* Kasu horretan "-a" hori ez da berezkoa; beraz, honela deklinatuko dugu: *urtarriletik, otsaileko, uztailera ...*
- **Zenbakiak** ere beste izenak bezala deklinatzen dira, zifraz idatzi eta tarterik utzi gabe eransten zaie atzizkia. Honela: *4an, 2009tik...*

## 2. ORDUAK

ISOren (International Standarization Organization: Estandarizatorako Nazioarteko Erakundea) arabera idatzi behar dira, hau da: orduak eta minutuak bina digituz eta bi puntuz bereizita:

10:00 / 11:00 / 16:00 / 20:00

### Zifratan

Orduak, minutuak eta segunduak adierazi bina digituz. Esaterako, idazkaritzetako bulego-orduetan adierazteko. Honela:

08:00-13:00

### Adi deklinatzerakoan!

Orduak puntuan direnean pluralean eta minutuak singularrean:

10:00etan      10:10ean

10:00etatik    10:15ean

10:00etara     10:30ean

### Kartel, egitarau eta antzekoetan

Beste era honetara ere joka dezakegu:

**Arratsaldeko 4retan (lauretan)**

**Goizeko 9etatik 11k arte (bederatzietatik hamaikak arte)**

## 3. LETRA LARRIAK ETA XEHEAK

Zalantzan ibiltzen gara, zenbait hitzen lehenengo letra nola idatzi behar dugun, larriz (maiuskulaz) edo xehez (minuskulaz): nola idazten dira karguak? Eta fakultateen izenak? Eta irakasgaienak? Gaztelaniaren eraginez, sarriegi jotzen dugu letra larriak erabiltzera.

### Letra larria

Batez ere honako hauetan sortzen zaigu zalantza:

Dekretu, lege eta horrelakoetan izen osoa agertzen denean: *Abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa (baina "...eta legeak dioenez...")*

Fakultate, eskola, sail, zerbitzu eta abarren izenetan: *Farmazia Fakultatea, Eri-zaintzako Unibertsitate Eskola, Lan Harremanen Unibertsitate Eskola, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua ...*

Jakintza-arloen eta irakasgaien izenetan: *Antropologia Fisikoa, Dermatologia, Finantza Kontabilitatea I eta II ...*

Erakundeetako batzordeen izenetan: *Euskara Batzordea, Campuseko Liburutegi Batzordea ...*

### Letra xehea

Kargu ofizial eta akademikoetan (*sailburua, zuzendaria, zerbitziburua*)

Urtaro, hilabete eta asteen egunetan (*udazkena, urtarrila, asteazkena*)

Pluraletan (*Euskal Herriko unibertsitateetan, euskara batzordeek*)

Letra larriei eta xeheei buruzko argibide gehiago beharko bazenu, jo ezazu ondoko webgunera:

<http://www.ehu.es/azpidazki/default.asp?itemID=25>



## 4. LABURTZAPENAK

Lau dira idatzietan erabili ohi diren laburtzapen motak: siglak, ikurrak, laburdurak eta hasteletrak.

### SIGLAK

Hitzen lehenengo hizkiak erabiliz sortzen dira. Letra larriz eta jarraian idazten dira, punturik gabe. Euskaraz deklinatzerakoan ere deklinabide marka jarraian idatzi behar dugu, eta ahoskatzen dugunaren arabera. Izen bereziak eta arruntak bereizi behar dira: **EHU** (artikulu gabe) eta **CDa** (artikuluarekin). Honelakoetan marratxoa jarri behar dugu, sigla ondo bereizteko eta nahasmenik ez sortzeko

*AEK-ko, UEU-ko*

### IKURRAK

Batez ere zientzia eta teknika alorrean. Hauek:

*m* (metro), *cm* (zentimetro), *€* (euro)

Punturik gabe idazten dira eta deklinatzerakoan marratxoa erabili behar dugu:

*kg-ko* (kilogramoko), *As-ak* (arsenikoak)

### LABURDURAK


Laburdura beti puntu batez idatziko dugu. Deklinabide-atzizkia ahoskeraren arabera da, eta marratxorik nahiz tarte gabe idazten da. Hala ere, deklinabide-atzizkia gehitu behar izanez gero, osorik idaztea komeni da.

\*Argibideetarako, deitu hurrengo tf.ra: / [Argibideetarako, deitu hurrengo telefonora:](#)

### INIZIALAK

Izen-abizenetako lehen letrak dira. Letra larriz, puntuak jarrita eta espaziorik gabe idazten dira.

Adibidea: **J.R. Martinez**



#### Ohikoak:

NA  
BEZa  
EAE  
BGAE

#### Laburdura erabilienak

**Helbideetan:** *jn.* (jauna), *and.* (andrea), *k.* (kalea), *esk.* (eskuina), *ezk.* (ezkerra), *zk.g.* (zenbakirik gabea), *pl.* (plaza), *etorb.* (etorbidea), *pas.* (pasealekua)

**Orokorrak:** *adib.* (adibidez), *or.* (orrialdea), *fra.* (faktura), *koop.* (kooperatiba), *tel.* (telefonoa), *etab.* (eta abar), *id.* (idem), *zk.* (zenbakia), *k.k.* (kontu korrontea)

#### Asteke egunen eta urteko hilan izenen laburdurak:

**Egunak:** *al.* (astelehena), *ar.* (asteartea), *az.* (asteazkena), *og.* (osteguna), *ol.* (ostirala), *lr.* (larunbata) eta *ig.* (igandea).

**Hilak:** *urt.* (urtarrila), *ots.* (otsaila), *mar.* (martxoa), *api.* (apirila), *mai.* (maiatza), *eka.* (ekaina), *uzt.* (uztaila), *abu.* (abuztua), *ira.* (iraila), *urr.* (urria), *aza.* (azaroa) eta *abe.* (abendua)

## 5. MARRATXOA HITZ ELKARTUETAN

Hitz-elkarketak marratxoz lotu ala bereizita idatzi, horixe izan ohi da sortzen zaigun beste zalantzetako bat.

Bereiz idatzi behar dira eta Euskaltzaindiak arautu du

1. **Aposizioak:** *A dokumentua, Axular ikastola, Larramendi kalea...*
2. **Egin, eragin, eman eta harturekin osatzen direnak:** *hitz egin, huts egin, barre eragin, su eman, parte hartu...*
3. **Etxez etxe modukoak:** *aurrez aurre, mendiz mendi, parez pare, sasirik sasi...*
4. **Egin berri ereduak:** *amaitu berri, hasi berri, etorri berri*
5. **Mahai gainean, etxe aurretik gisakoak:** *esku artean, gerra aurretik, denda osteko*
6. Bigarren osagaia **bila, eske** edo **falta** duten elkarteak: *bake bila, diru eske, argibide eske, harreman falta*
7. Lehen osagaia **erdal, euskal, giza, itsas** duten elkarteak: *erdal musika, euskal idazleak, giza zientziak, itsas garraioa...*



Salbuespenen zerrenda luzea da:

*Antzeman, hitzartu, lokartu, onartu, ezkonberri, nazioarteko, jendaurrean, prentsaurreko, tirabira, esamesa, ...*

Erabili Hiztegi Batua zalantzetako kasuak kontsultatzeko.

Marratxoz idatziko dira Euskaltzaindiak araututakoak

1. **Gorri-gorri(a) gisakoak:** *labur-labur, luze-luzea, alfer-alferrik, hasiera-hasieratik...*
2. **Apurka-apurka ereduak:** *egunero-egunero, aldian-aldian, banan-banan...*
3. **Seme-alabak, zuri-gorriak eredu elkarteak:** *aitona-amonak, sartu-irten, joan-etorri, gutxi-asko...*
4. **Barra-barra**, plisti-plasta edo zehatz-mehatz modukoak: *bor-bor, txio-txioka, duda-muda, handi-mandi...*
5. **Ezkio-Itsaso** ereduko leku-izen elkartuak: *Lasarte-Oria, Etxarri-Aranatz, Abanto-Zierbena*

Lotuta idatziko dira

**Jarleku** modukoak: *egongela, aldagela, irakasmaila, eskabide, ikerlan, lehiakide*

**Aldagaitz** modukoak: *herdoilgaitz, asmaezin, minbera, ulerterraz*

**Odolustu** modukoak: *uranditu, gaitzetsi, indargabetu, biziberritu*

Bigarren osagaia **-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** dutenak: *atezain, haragizale, ardura-dun, zentzugabe*

Bigarren osagaia **-aldi, -buru, -gizon, -(k)ume, -(g)une, -(k)ide, -orde, -gai, -alde:** *agintealdi, batzordeburu, sailburu, sailburuorde, ezkon-gai, ekialde.*

Lehen osagaia **aurre-, azpi-, gain-** edo **sasi-** dutenak: *aurreiritzi, gainbalio, sasimaisu*

**Lauburu** ereduko elkarteak: *asmobakar, zelulabakar, begibakar...*





### Marratxoarekin idaztea hobesten da

1. **Eguzki-lore modukoak:** lan hitzarmen edo lan-hitzarmen, bide orri edo bide-orri, sakontze ikastaro edo sakontze-ikastaro.
2. **Kale-garbitzaile, adar-jotze edo ate-joka ereduak:** odol-emaile, soinu-jole, denbora-galtze, diru-bilketa, lan-eskaintza, aho-zabalka, kontu-kontari...

#### OHARRA:

Bi osagaiak letra larriz hasten direnean, hitz elkartuak marratxo BARIK idaztea hobetsi eta gomendatzen da. Errotuluetan, ikasgaien izenetan eta izendapenetan gertatzen da hori, batez ere:

*Medikuntza Fakultatea, Foru Aldundia.*

*FORU ALDUNDIAREN LAN ESKAINTZA...*

Marratxo gabe idaztea hobesten da kasu hauetan

**Lore sorta, ogi puska eskola mota** gisako elkarretak marratxo gabe idaztea hobesten da:

*Jende andana, auto ilara, galdera sorta, idi pare, diru pila, zaldi tropel, hondar ale, ur tanta, politika molde, arrain mota*

**Adi:** esanahi bat baino gehiago izan dezaketen sorta puska edo mota eredu-tako hitz-elkarrekin:

*Zuzendaritza-talde, futbol-talde*

### Hobe loturik idaztea

Sudurluze modukoak: burusoil, odolbero, eskuzabal, musugorri, puntazorrotz

### Aukeran, baina hobe marratxoz

1. **-ia bukaera dutenak:** industria-sare, familia-liburu, metodologia-arazo
2. **Kultura, hizkuntza, literatura, natura osagaidunak:** hizkuntza-eskakizun, literatura-astea, natura-zientzia

### Berrelkarketarik ez

Baztertu horrelakoak: zerga-bilketa-bulegoa edo auto-saltzaile-elkartea

Horrelakoak hobe gisa honetara ematea: zerga-bilketarako bulegoa eta auto-saltzaileen elkartea







**ZALANTZEK ITOTA**



## ZALANTZEK ITOTA

Seguru ibiltzeko, besteren zalantzak ere lagungarri izan ahal dira. Besteren zalantzak entzun eta horiei emandako erantzunak, jakina. Besteren zalantzak askotan gureak ere izaten direlako. Hona hemen, ohiko zalantzen zerrenda bat. Horietatik batzuk Azpidazkiko Argitokia izeneko kontsultagunetik atera dira.

**ANDRE (\*ANDERE)**

*Andere* Iparraldeko forma da; Euskaltzaindiak *andre* hobesten du euskara baturako.

**ASMOZ (\*EGIN ASMOZ)**

Euskaltzaindiaren arabera, *egiteko asmoz*, *joateko asmoz* gisako egitura tradiziodunak erabili behar ditugu. Eta ez *\*egin asmoz*, *\*joan asmoz*

*\*hori egiteko asmoz abiatu da/hori egiteko asmotan/asmoarekin*

**BAT/A**

Gaztelaniazko *un / una* guztiak ez dira beti bat euskaraz.

**\* Unibertsitate publiko da hau! / Unibertsitate publikoa da hau.**

Azalpena:

Izenondoa eta generoa: *neska modernoa, musika klasikoa*.

Euskaraz, gaztelaniaz ez bezala, ez dago genero morfemarik eta, horrenbestez, izenondoek ez dute izaten forma bat maskulinorako eta beste bat femeninorako (*moderno/\*moderna; klasiko/\*klasika; altu/\*alta...*), forma bakarra baizik (*moderno, klasiko, altu, erritmiko..*)".

**BATEAN, BATEN (\*BATE TAN)**

*\* Eskari-orria gutunazal batetan sartuko ditu ikasleak.*

Eskari-orria gutunazal batean/baten sartuko ditu ikasleak.

Leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek erabaki ditu Euskaltzaindiak euskara baturako (kontuan izan *bata, batak* eta halakoak beste hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzeko direla).

**BATEZ BESTE (\*BATEZBESTE)**

Erabili *batez beste* eta *batez bestekoa* euskara batuan.

Batez beste egunean 9 ordu lan egiten dugu.

Batez bestekoa...

**NABARMENAK**

- Zure zalantzak argitu nahi badituzu, jo hona:

<http://www.ehu.es/azpidazki/argitokia.asp>

## ZALANTZEK ITOTA

### BATZUK, BATZUEI (\*BATZU, \*BATZUERI, \*BATZUREN ...)

### DAGO (\*AURKITZEN DA?)

\*EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea Leioan aurkitzen da.

EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea Leioan dago.

### Ø (\*BEZALA)

\*Hori irakasle bezala aritu zen Arte Ederren fakultatean.

Hori irakasle aritu zen Arte Ederren fakultatean.

### BOTA

\* Kargutik bota dute errektoreordea.

Kargutik kendu dute errektoreordea.

### 4,5 kreditutako ikasgaia/ 4,5 kredituko ikasgaia

“Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: buru argiko neska, adineko pertsona, hiru hankako mahaia, bost orriko txostena,... eta antzeko sintagmetan, alegia, nolako galderari erantzuten diotenean, -ko hobesten da.

### BURUTU

Askotan, *egin* adiera ematen zaio, gaztelaniazko *llevar a cabo* horrekin nahastuta. Osera, *amaitu* esan nahi du aditz honek, eta ez *egin* ezta *gauzatu* ere.

\*Datorren hilabeteetan 3 bilera burutuko ditugu.

Datorren hilabeteetan 3 bilera izango/gingo ditugu.

### DOKUMENTU (\*DOKUMENTO) DEPARTAMENTU (\*DEPARTAMENTO)

Erabili *dokumentu* edo *agiri*, eta *departamentu* euskara batuan.

### EHUNEKO/PORTZENTAJE (\*PORTZENTAIA)

Erabili *ehuneko* euskara batuan. Euskaltzaindiak ez du *portzentaia* hitza jaso; eta *portzentaia* baino *ehuneko* hobesten du.

### ERANTZUKIZUN (\*ERANTZUNKIZUN)


Erabili *erantzukizun* euskara batuan.

### FROGA/PROBA

Ez dute esanahi bera. *Frogatu* aditzaren esanahiak badu nolabaiteko lotura egia/gezurra baieztatzearekin. Ezin da inor erruduntzat jo, frogarik gabe.

*Probatu* bestetik da: 1. indarrak neurtzea. 2. edariak dastatzea. Azterketa-probetan *hamabost puntu lortu ditu*.

Zalantzarik izanez gero, beti jo daiteke Euskaltzaindiaren arauetara: <http://www.euskaltzaindia.net/>



## EUSKARAZ SEGURU

### FUNTZIONARIO (\*FUNTZIONARI)

Erabili *funtzionario* euskara batuan

### GUSTURA, GUSTUKO (\*GUSTORA, \*GUSTOKO)

Erabili *gustura, gustuko* euskara batuan.

### GUTXI GORABEHERA (\*GUTXIGORABEHERA, \*GUTXI GORA-BEHERA)

Erabili *gutxi gorabehera* euskara batuan

### HAU GUZTIA (\*GUZTI HAU)

Euskaltzaindiak dio *hau guztia, horietan guztietan, horiekin guztiekin* eta horrelako egiturak erabili behar direla. Hala ere, horiekin batera, *hau guztiau, hauek guztiok...* ere erabil daitezke.

### HOBE (\*HOBEAGO)

Gaur egun askotan entzuten da *\*hobeago* hobe-ren ordeaz.

*\*Oraingo ikasleak aurrekoak baino hobeagoak dira.*

Oraingo ikasleak aurrekoak baino hobeak dira

### Ø (\*IZAERA IZAN)

*\*Tituluak/ziurtagiriak/baimenak behin-behineko izaera izango du/*

Titulua/ziurtagiria/baimena behin-behinekoa izango da.

### IRAKASGAI (\*ASIGNATURA)

Erabili *ikasgai* (lección) edo *irakasgai* (asignatura) euskara batuan.

### JARDUN (\*IHARDUN)

Erabili *jardun* forma guztietarako: *jarduna, jardunaldia, jarduera...*

### JARRAITU ZER (\*JARRAITU ZEREKIN)

*\*Lan egin eta gero jarraituko dugu bilerarekin.*

Lan egin eta gero jarraituko dugu bilera.

### KONFIANTZA (\*KONFIDANTZA)

Euskara batuan, erabil ezazu *konfiantza*.


### KONPROMISO (\*KONPROMEZU)

Euskara batuan *konpromiso* erabili; gogoan izan, hala ere, Hegoaldeko hitza eta herri-mailakoa dela. *Konpromisoa hartu* baino *hobe da hitz eman*.

**Koldo? Egon pixka batean, oraintxe jartzen da telefonoan/ oraintxe jarriko da telefonoan.**

Etorkizunean gertatzekoak direnak, euskaraz, -KO marka hartzen dute (*bihar deituko dizut*). Dena dela, ez da beti hala, eta -T(Z)EN marka hartzen duten formak ere ikusten dira (*bihar deitzen dizut*).

Eskaerek eta galdera-proposamenek ere -KO marka hartu behar dute (*zigarro bat emango didazu?; kalera joango gara?*).



## EUSKARAZ SEGURU

### KONTUAN/KONTUTAN

Kontuan izan...

### LANGILEAK/LANGILERIA (\*LANGILEGOA)

\*Unibertsitateko *langilegoak* lan-baldintza hobek eskatu ditu.

Unibertsitateko langileek/ langileriak lan-baldintza hobek eskatu ditu.

Berdin *ikaslegoa*...

### LEHENBAILEHEN (\*LEHENBAITLEHEN)

Euskara Batuan, erabil ezazu *lehenbailehen*.

### LEHENGO EGUNEAN (\*BESTE EGUNEAN)



### LIZENTZIADUN (\*LIZENTZIATU)

Lehena hobesten du Euskaltzaindiak.

Zuzenbideko/Zuzenbidean *lizentziaduna*.

### LUZATU, LUZA, LUZATZEN

Oker erabiltzen dira batzuetan. *Egin* aditzaren ordean.

\*Zuzendariak *luzatutako txosten honetan*

Zuzendariak egindako txosten honetan

### MATENTZE-LANAK (\*MANTENIMENDU)

\**mantenimendu* forma okerra da euskaraz; erabil ezazu *mantentze*.

### MEREZI IZAN (\*PENA MEREZI DU)

Euskaraz badira merezi dutenak, baina ez pena merezi dutenak.

\*Pena merezi du lanean saiatzea, gauzak txukun egiteko.

Merezi du lanean saiatzea, gauzak ondo egiteko.

### MINIMO (\*ZERBITZU MINIMOAK)

Matematiketan egokia den arren, bestelako *minimo*-ak adierazteko beste baliabide batzuk erabiliko ditugu euskaraz.

### NON IBILI (\*NONDIK IBILI)

\*Errektorea Bartzelonatik *dabil*.

Errektorea Bartzelonan *dabil*.

\* Zuek ez zarete ongi eramaten zuzendariarekin/ zuek ez zarete ongi konpontzen zuzendariarekin.

Gaztelaniaz, “llevarse bien” esapideak esan nahi du pertsona batzuk ongi konpontzen direla elkarrekin. Horrelakoak elkarrekin ongi etorri/gaizki etorri eta beste forma batzuen bidez eman izan dira euskaraz (“moldatu”, “konpondu” aditzak baliatuta, adibidez), baina azken boladan indar handia hartzen ari da erdarazko esapidearen kalkoa: “ongi eraman / gaizki eraman”. Esaldi bitxiak entzuten dira hortik abiatuta: “ez zara ongi eramaten osabarekin” eta holakoak.





## EUSKARAZ SEGURU

### OSPATU

\*Lan-arriskuei buruzko jardunaldia bihar ospatuko da.

Lan-arriskuei buruzko jardunaldia bihar izango/egingo da.

Aditz horrekin ondoen egokitzen direnak jaiak eta ospakizunak dira. Bilerak, lehiaketak, jardunaldiak eta topaketak hizpide ditugunean, *izan* edo *egin* erabiliko ditugu... Zer esanik ez hiletak ditugunean.

### ETA ERDIETAN (\*T´ERDIETAN)

### ZAIN (\*ZAI)

Erabili zain euskara batuan, bai eta haren bidez sortutakoetan ere: *artzain*, *atezain*, *diruzain*...

### ZERGATIK/ \*ZERGAIK

Zergatik kendu dute argindarra unibertsitatean?

Berdin, \**horregaitik* ez zaitez kezkatu, \**zuregaitik*, \**gosegaitik*, eta abar.

### ZUZENDU

\*Posta elektronikoa zuzendu zion.

Posta elektronikoa bidali zion.

\*Ingeniaritzako ikasleei zuzendutako ikastaroa.

Ingeniaritzako ikasleentzako ikastaroa.



**\* Horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, ziurtagiri hau luzatzen dut/ egiten dut**

Askotan gaztelaniazko “expedir” eta “extender” aditzen baliokidetzat hartzen da euskarazko “luzatu”; baina, testuinguruaren arabera, oso gutxitan ordezkatu ahal ditu.

*Luzatu* aditzak honako adiera hauek ditu:

- Luzeago bihurtu, luzera handitu
- Zerbaitetarako unea atzeratu
- Zerbait norbaiten eskumenean jarri.



The image features a teal background with abstract, light-colored shapes at the bottom. A horizontal banner with a light green-to-teal gradient is centered. The text 'TESTUZ TESTU' is written in white, bold, uppercase letters on the banner. A thin orange circle is positioned behind the banner, partially overlapping the text. A black bracket is on the left and an orange bracket is on the right, both pointing towards the banner.

**TESTUZ TESTU**



## TESTUZ TESTU

Hainbat testu arrunt ekarri ditugu atal honetara, eta horiek sortzeko aholkuak eta argibideak.

## EDUKIA:

GUTUNAK	1
GUTUNETAKO ESALDI ERE-DUAK	2
E-MAILAK	4
OHARRAK	5
BILERA-DEIAK	6

## GUTUNAK

Askotan egokitzen zaigu gutunak idaztea. Hainbat motatakoak badira ere, berdinak izaten dira horietako askotan hainbat konbentzio. Lehenik eta behin, gutunak hasi eta amaitzeko konbentzioak ikusten hasiko gara. Lau gutun mota bereiz ditzakegu: formalak, neutroak, hurbilak eta lagunartekoak.

	FORMALAK	NEUTROAK	HURBILAK	LAGUNARTEKOAK
H A S I E R A N	(kargua) jaun /andre agurgarria Jaun / andre agurgarri hori Jaun / andre agurgarria	(abizena) jauna / andrea Jaun / andre hori Jauna / andrea Agur t' erdi	Laguna Adiskidea Lagun hori Adiskide hori	Kaixo Aupa Eup Aspaldiko
A M A I E R A N	Adeitasunez, agur Begirunez, agur	Horrenbestez, agur Besterik gabe, agur	Agur, adiskide Agur bero bat	Ondo ibili / Ondo izan Musuak Ondo pasa aste-buruan

GUTUNETAKO ESALDI EREDUAK

Acabamos de recibir su carta.	Zure eskutitza jaso berri dugu.
Acuso recibo de la factura mandada por ustedes.	Zuk bidalitako faktura hartu dudala adierazten dut.
Aprovechamos la ocasión para comunicarle que...	Bide batez zera jakinarazi nahi dizugu:
Atentamente le saluda / Un cordial saludo.	Begirunez, agur / Agur bero bat / Adeitasunez.
Con motivo de la falta de material, nos es imposible fijar la fecha.	Materiala iritsi ez denez, ezinezkoa zaigu data finkatzea / ezin izan dugu data finkatu.
Con motivo de la inauguración / A raíz de la inauguración, ...	Inaugurazioa dela eta, ...
El motivo de este mensaje ...	Mezu honen helburua ...
En caso de que deseen mas información diríjanse a...	Informazio gehiago nahi izanez gero jo ezazue...
En lo referente a este tema / En lo concerniente a este tema...	Gai honi dagokionez...
En mi opinión será conveniente que vinieras...	Nire iritiz komenigarri / bidezko / egoki litzateke zu etortzea.
En respuesta a su solicitud...	Zure eskaerari erantzunez...
Esperamos su respuesta.	Zure erantzunaren zain geratzen gara / Zure erantzunaren zain...
Esperamos que no habrá ningún problema.	Arazorik ez egotea espero dugu.
Estimado cliente / Apreciado señor / a:	Bezero agurgarria / Jaun / andre preziatua:
Hemos recibido con profunda tristeza...	Atsekabe handiz jaso dugu ... -lako berria.
Justificante de recibo / justificante.	Jaso izanaren agiria / Ziurtagiria, egiaztagiria.
Lamentamos comunicarle / Sentimos comunicarle...	Sentitzen dugu ... adieraztea. Zoritxarrez adierazi beharrean gaude...
Le agradecemos su ayuda.	Zure laguntza eskertu nahi dugu / Mila esker zure laguntzagatik / Jaso ezazu gure esker ona.
Les agradeceríamos que nos enviaran detalles sobre los productos.	Eskertuko genizueke produktuei buruzko zehaztasunak bidaltzea.
Les comunicamos que / Les anunciamos que...	Jakinarazten dizuegu / Adierazten dizuegu...
Le deseo buena suerte.	Zorterik onena opa dizut.
Le detallamos...	Zehazten dizugu...
Le enviaremos la factura.	Faktura bidaliko / igorriko dizugu.
Envío adjunto una hoja de pedido.	Honekin batera doakizu eskaera-orria. Honi atxikita bidaltzen dizut eskaera-orria.
Remítanos por correo.	Posta bidez bidaliezaguzu.
Le ofrecemos nuestros servicios.	Gure zerbitzuak eskaintzen dizkizugu.
Siempre a su servicio.	Zure esanetara.
Le presentamos nuestras mas sinceras disculpas.	Barkamena eskatu nahi dizugu. Barka eragozpenak.

GUTUNETAKO ESALDI EREDUAK

Disculpe el retraso de nuestro envío.	Barka lehenago bidali ez izana.
Le saludamos.	Agurtzen zaitugu.
Le sugiero que mire los estatutos.	Estatutuak begira ditzazun iradokitzen dizut.
Le enviamos adjunto...	Honekin batera doakizu / Honekin batera bidaltzen dizut.
Les propongo que...	(...) proposatzen dizuet.
Les rogamos que nos envíen ese documento.	Mesedez, dokumentu hori bidaltzea eskatzen dizuegu.
Le agradecería que me envíe...	Eskertuko nizuke ... bidaltzea.
Mediante este escrito...	Idatzi / mezu elektronik honen bidez.
Nos complace comunicarle/ es un placer comunicarle...	Atseginez / atsegin handiz jakinarazten dizugu.
Nos dirigimos a vosotros/as...	Zuengana zuzentzen gara / zuengana jotzen dugu.
Nos es grato invitarle...	Atseginez gonbidatzen zaitugu (zertara)/ (zertara) gonbidatu nahi zaitugu.
Os agradeceríamos que tuvierais en cuenta nuestra propuesta.	Gure proposamena kontuan hartzea ... / aintzat hartzea eskertuko genizueke.
Póngase en contacto con nosotros/as.	Jar zaitez gurekin harremanetan.
Quedamos a su disposición / Nos hallamos a su disposición.	Zure esanetara gaude.
Quisiera transmitirle nuestra queja/ critica.	(...) dela eta kexa/ desadostasuna azaldu nahi dugu.
Respecto a su carta del 12 de diciembre...	Abenduaren 12ko zure gutuna dela eta...
Según hablamos por teléfono.	Telefonoz hitz egindakoaren arabera, ...
En lo que respecta a su pedido del 8 de julio...	Uztailaren 8ko zure eskaerari dagokionez...
Tal y como acordamos...	Adostu bezala, ... / Adostu genuen bezala, ... / Adostutakoaren arabera, ...
Ten en cuenta / recuerda que la reunión será el martes.	Kontuan izan / gogora ezazu / gogoan eduki asteartean izango dela bilera.
Tras recibir su carta...	Zure gutuna jaso eta gero...
Reciba nuestra más sincera felicitación.	Jaso itzazu gure zorionik beroenak.
Le comunicamos que hemos recibido...	... jaso dugula adierazi nahi dizugu.

## POSTA ELEKTRONIKOAK

Gutunetarako aipatu ditugun esaldi eta konbentzio guztiek posta elektronikoetarako ere balio dute. Baina, hala ere, posta elektronikoek badituzte berezitasun batzuk gutunek ez dituztenak. Hori dela eta, komeni da aholku labur batzuk ematea:


- E-mailak elkarrizketaren ordezkioak dira: hori dela eta, **jarri irakurlearen tokian**.
- Idatzi testu argiak eta zehatzak: **beharrezko informazioa bakarrik eman**.
- Informazioa ondo ordenatu eta gai bat baino gehiago baldin bada, **gaiak banan-banan landu**.
- **Kontuz luzerarekin:** informazio gehiegi sartzea baino hobe da dokumentu bat eranstea. Eranskina gehitzen badiogu, zehaztu zein den dokumentua.
- Igorlea mezuan bertan azaltzen den arren, komeni da **amaieran sinatzea;** hurbiltasuna ematen dio.
- Ondo zehaztu **Gaia** atala.
- Hartzailearekiko harreman motaren arabera, **estilo formala edo informala** erabiliko dugu.
- Lagunartean ere komeni da **kortesia-erantzak** erabiltzea (*bidali, mesedez, ahal duzunean bidali, ...*)

### NABARMENAK

**E-mailak elkarrizketaren ordezkioak dira: hori dela eta, jarri irakurlearen tokian.**


**Kontuz luzerarekin. Ez sartu informazio gehiegi.**

## HONELA EZ





HONELA BAI



Informazioa argi eta zehatz eman.

Gaiak banaka tratatu.

Ondo zehaztu zer dokumentu bidaltzen den.

## OHARRAK

Oharrak ere maiz idatzi behar ditugu. Kontuan izan behar dugu oharrak-eta normalean **pasadan edo urrunetik** irakurtzen ditugula. Hori dela eta, komeni da zenbait aholku aintzat hartzea:

- Zaindu **letra-tamaina** eta testuaren **luzera**.
- **Zehatz** eman informazioa.
- Nabarmendu **hitz klabeak**.
- Zaindu oinarrizko egitura: izenburua, hartzailea (**nori zuzendua**), **gaia** edo helburua, igorlea (**sinadura**). Beharrezkoa denean: **harremanetarako** izena eta telefonoa.

FOTOKOPIAGAILUA  
hondatuta dago

KONTUZ!

Margotuta dago

### IKASLEENTZAKO OHARRA 2008-2009 Ikasturteko orla

Ikasketak aurten amaitzen dituzten ikasleek orla egiteko aukera izango dute:

EGUNA: martxoak 27

ORDUA: 10:00etan

TOKIA: Areto Nagusia

Nahitaezkoa da **alkandora zuria** ekartzea.

ONGI ETORRI ETA AURKEZPEN  
EKITALDIAK

IKASLE BERRIENTZAKO

FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEAN

Filosofia 1. maila  
Pedagogia 1. maila

Gizarte Hezkuntza 1. maila

Irailaren 24an

Euskaraz: 11:30ean

Gaztelaniaz: 12:30ean

**Tokia: Fakultateko**

**Areto Nagusia**

## BILERA-DEIAK

Bilera-deiak dira pertsona bati toki, egun eta ordu jakin batean bilera duela eta bilera horien aztergaiak zeintzuk diren jakinarazteko erabiltzen diren idazkiak.

Honako osagai hauek izan behar ditu:

- **Izenburua**, edo bileraren izena.
- Bilerari buruzko **xehetasunak**: bilera-eguna, ordua, tokia.
- **Aztergaiak**
- **Izenpea**

**MUGIKORTASUN PROGRAMAK:**  
**ERASMUS, HEGO AMERIKA ETA BES-**  
**TE NORAKO BATZUK**

Onartutako ikasleentzako informazio bilera baterako deialdia.

EGUNA: Martxoak 9.

LEKUA: Batzar Aretoa.

ORDUA: 11:30.

Idazkaritza

**GIZARTE ZIENTZIAREN DIDAKTIKA**  
**ARLOKO IRAKASLEEI**

Arloko bilerara dei egiten dizut:

Noiz: **2009ko apirilaren 21ean**

Ordua: **11:00etan**

Non: **Saileko Mintegian**

Gaia: **2009ko aurrekontu banaketa**

Donostia, 2009-03-12

**Arloko koordinatzailea**





**BIBLIOGRAFIA**



CALVINO, Italo: *Punto y Aparte*, Tusquets, Bartzelona, 1995.

Euskararen Aholku Batzordea: *Euskararen Kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2004.

HAEE-IVAP: *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1997.

HAEE-IVAP: *Zalantza-dantza*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2000.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon: *Ortotipografia*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2005.

